8	Máquinas auxiliares de apuestas	Máquina auxiliar de apuestas	2.570,78
---	---------------------------------	------------------------------	----------

NOTA: El rendimiento neto resultante de la aplicación de los signos o módulos anteriores incluye, en su caso, el derivado de máquinas de recreo tales como billar, fútbolín, dardos, etc..., así como de los expositores de cintas, vídeos, compact-disc, expendedores de bolas, etc..., máquinas de juegos infantiles, máquinas reproductoras de compact-disc y vídeos musicales, loterías y el servicio de uso de teléfono, siempre que se realicen con carácter accesorio de la actividad principal.

ACTIVIDAD: OTROS CAFES Y BARES

Epígrafe IAE: 673.2

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	1.813,42
2	Personal no asalariado	Persona	12.587,17
3	Potencia eléctrica	KW. contratado	101,33
4	Mesas	Mesa	132,57
5	Longitud de barra	Metro	179,03
6	Máquinas tipo "A"	Máquina Tipo "A"	952,41
7	Máquinas tipo "B"	Máquina Tipo "B"	3.489,64
8	Máquinas auxiliares de apuestas	Máquina auxiliar de apuestas	2.474,75

NOTA: El rendimiento neto resultante de la aplicación de los signos o módulos anteriores incluye, en su caso, el derivado de máquinas de recreo tales como billar, fútbolín, dardos, etc..., así como de los expositores de cintas, vídeos, compact-disc, expendedores de bolas, etc..., máquinas de juegos infantiles, máquinas reproductoras de compact-disc y vídeos musicales, loterías y el servicio de uso de teléfono, siempre que se realicen con carácter accesorio de la actividad principal.

ACTIVIDAD: SERVICIO DE HOSPEDAJE EN HOTELES Y MOTEL DE UNA O DOS ESTRELLAS

Epígrafe IAE: 681

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	5.584,98
2	Personal no asalariado	Persona	18.347,40
3	Número de plazas	Plaza	334,49

NOTA: El rendimiento neto resultante de la aplicación de los signos o módulos anteriores incluye, en su caso, el derivado de la comercialización de loterías, siempre que esta actividad se desarrolle con carácter accesorio de la actividad principal.

ACTIVIDAD: SERVICIO DE HOSPEDAJE EN HOSTALES Y PENSIONES

Epígrafe IAE: 682

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	5.120,21
2	Personal no asalariado	Persona	17.448,32
3	Número de plazas	Plaza	272,02

ACTIVIDAD: SERVICIO DE HOSPEDAJE EN FONDAS Y CASAS DE HUESPEDES, ASI COMO EL DE ALOJAMIENTOS TURÍSTICOS AGRICOLAS QUE NO SEAN DECLARADOS COMO ACTIVIDAD COMPLEMENTARIA A UNA ACTIVIDAD AGRICOLA, GANADERA O FORESTAL.

Epígrafe IAE: 683

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	4.670,67
2	Personal no asalariado	Persona	15.200,61
3	Número de plazas	Plaza	140,18

NOTA: Los alojamientos turísticos agrícolas que no hayan sido declarados complementarios a una actividad agrícola, ganadera o forestal, por el Departamento para el Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, deberán tributar en el régimen de estimación objetiva por los módulos previstos en el presente epígrafe.

ACTIVIDAD: REPARACION DE ARTICULOS ELECTRICOS PARA EL HOGAR

Epígrafe IAE: 691.1

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	4.975,43

2	Personal no asalariado	Persona	18.004,54
3	Superficie del local	Metro cuadrado	19,41

ACTIVIDAD: REPARACION DE OTROS BIENES DE CONSUMO N.C.O.P. (EXCEPTO REPARACION DE CALZADO, RESTAURACION DE OBRAS DE ARTE, MUEBLES, ANTIGUEDADES E INSTRUMENTOS MUSICALES)

Epígrafe IAE: 691.9

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	4.754,49
2	Personal no asalariado	Persona	18.789,31
3	Superficie del local	Metro cuadrado	52,10

ACTIVIDAD: TRANSPORTE POR AUTOTAXIS

Epígrafe IAE: 721.2

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	1.508,62
2	Personal no asalariado	Persona	9.608,02
3	Distancia recorrida	Kilómetro	0,06

NOTA: El rendimiento neto resultante de la aplicación de los signos o módulos anteriores incluye, en su caso, el derivado de la prestación de servicios de publicidad que utilicen como soporte el vehículo, siempre que se desarrollen con carácter accesorio de la actividad principal.

ACTIVIDAD: TRANSPORTE DE VIAJEROS POR CARRETERA

Epígrafe IAE: 721.3

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	2.750,59
2	Personal no asalariado	Persona	18.736,01
3	Núm. asientos ámbito nacional	Asiento	140,18
4	Núm. asientos resto	Asiento	49,76

ACTIVIDAD: TRANSPORTE DE MERCANCÍAS POR CARRETERA

Epígrafe IAE: 722

Módulo	Definición	Unidad	Rendimiento neto anual por unidad Euros
1	Personal asalariado	Persona	2.728,59
2	Personal no asalariado	Persona	10.090,99
3	Carga vehículos	Tonelada	126,21

NOTA: El rendimiento neto resultante de la aplicación de los signos o módulos anteriores incluye, en su caso, el derivado de las actividades auxiliares y complementarias del transporte, tales como agencias de transportes, depósitos y almacenamiento de mercancías, etc., siempre que se desarrollen con carácter accesorio de la actividad principal.

NOTA COMUN: El rendimiento neto resultante de la aplicación de los signos o módulos anteriores, incluye, en su caso, el derivado del comercio al por menor de labores de tabaco, realizado en régimen de autorizaciones de venta con recargo, incluso el desarrollado a través de máquinas automáticas.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEN ZERGAREN ZEINU, INDIZE EDO MODULUAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

ARAU OROKORRAK

1. Jarduera bakoitzari dagokion etekin garbia jarduera horrentzat ezarrita dauden zeinu edo moduluei dagozkien zenbatekoen batura izango da.

Zeinu edo moduluen zenbatekoa zein den kalkulatzeko, berriz, beren unitate bakoitzari ezarritako zenbatekoa jardueran erabili den edo instalatuta dagoen unitate kopuruarekin biderkatuko da.

2. Jarduerak indize zuzentzailea ezarrita dutenean, etekin garbia eragiketa honen emaitza izango da: Aurreko 1. zenbakian definitutakoa bider hari dagozkion indize zuzentzaileak.

Indize zuzentzaileak, espreski ezarrita dituzten jardueretan baino ez dira aplikatuko, eta beti ondorengo 3. eta 4. zenbakietan adierazten diren baldintzak, zenbatekoa, hurrenkera eta bateraezintasuna kontuan izanik.

3. Indize zuzentzaileak. Egoerak eta zenbatekoa.

3.1. Indize zuzentzaile bereziak.

3.1.a) Autotaxi bidezko garraioa:

<i>Udalerriko biztanleak</i>	<i>Indizea / Índice</i>	<i>Población del municipio</i>
10.000 biztanleraino	0,85	Hasta 10.000 habitantes
10.000 baino gehiago eta 100.000 baino gutxiago	0,90	Más de 10.000 y menos de 100.000 habitantes
100.000 biztanle edo gehiago	1,00	100.000 o más habitantes

Aurreko indizeak jarduera burutzen den udalerriko biztanle kopuruaren arabera aplikatuko dira.

Jarduera bat udalerrri desberdinetan egiten bada eta horrek aurreko paragrafoan azaldutako indizetakoren bat baino gehiago aplikatzeko aukera ematen badu, indize bakar bat aplikatuko da: Biztanle gehiago dituen udalerriri dagokiona.

3.1. b) Bidaiarien errepidezko garraioa:

0,80 indizea aplikatuko da titularrak ibilgailu bakar bat duenean.

3.2. Indize zuzentzaile orokorra.

Ondoren zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituzten jarduerak:

- Titularra pertsona fisikoa izatea.
- Soldatapeko langilerik ez edukitzea.
- Jarduera lokal bakar batean egitea.
- Jarduerari ibilgailu bat bakarrik egotea atxikita eta honek 1.000 kilogramoko edukiera karga ez gainditzea.

<i>Udalerriko biztanleak</i>	<i>Indizea / Índice</i>	<i>Población del municipio</i>
2.000 biztanleraino	0,70	Hasta 2.000 habitantes
2.000 biztante baino gehiago eta 5.000 baino gutxiago	0,75	Más de 2.000 y menos de 5.000 habitantes
5000 biztanle baino gehiago	0,80	Más de 5.000 habitantes

Aurreko indizeak jarduera burutzen den udalerriko biztanle kopuruaren arabera aplikatuko dira.

Jarduera bat udalerrri desberdinetan egiten bada eta horrek aurreko paragrafoan azaldutako indizetakoren bat baino gehiago aplikatzeko aukera ematen badu, indize bakar bat aplikatuko da: Biztanle gehiago dituen udalerriri dagokiona.

3.3. Denboraldiko indize zuzentzailea:

<i>Denboraldiaren iraupena</i>	<i>Indizea / Índice</i>	<i>Duración de la temporada</i>
60 egun bitartean	1,50	Hasta 60 días
61 eta 120 egun bitartean	1,35	De 61 a 120 días
121 eta 180 egun bitartean	1,25	De 121 a 180 días

Indize hau denboraldiaren iraupenaren arabera aplikatuko da.

Normalean urteko egun jakin batzuetan, jarraitu nahiz txandakatuetan, burutzen diren jarduerak hartuko dira denboraldiko jardueratzat, beti ere, egun horien urteko kopuru osoa 180tik gorakoa ez bada.

3.4. Soberakinaren indize zuzentzailea.

Hurrengo jardueren etekin garbiak jarraian adierazten diren zenbatekoak gainditzen ditunean, horien gaineko soberakinari 1,30 indize zuzentzailea aplikatuko zaio.

<i>Jarduera ekonomikoa</i>	<i>Zenbatekoa / Cantidad (eurotan / euros)</i>	<i>Actividad económica</i>
Saltzailadun establezimenduetan edozein motatako janari eta edariak txikizka saltzea.	18.598,85	Comercio al por menor de cualquier clase de productos alimenticios y de bebidas en establecimientos con vendedor.
120 metro karratuko azalera baino gutxiagoko saltokia duten establezimenduetan autozerbitzu	30.507,91	Comercio al por menor de cualquier clase de productos alimenticios y de bebidas en régimen de autoservicio o mixto en establecimientos cuya sala

erregimenean edo erregimen mistoan edozein motatako janari eta edariak txikizka saltzea.		de ventas tenga una superficie inferior a 120 metros cuadrados.
661 taldean eta 662.1 epigrafean zehaztu ez diren establezimenduetan edozein motatako artikuluak, janariak eta edariak barne, txikizka saltzea.	19.833,21	Comercio al por menor de toda clase de artículos, incluyendo alimentación y bebidas, en establecimientos distintos de los especificados en el grupo 661 y en el epígrafe 662.1.
Merkatal establezimendu finko batetik kanpo janariak txikizka saltzea, edari eta izozkiak barne.	17.395,00	Comercio al por menor fuera de un establecimiento comercial permanente de productos alimenticios, incluso bebidas y helados.
Merkatal establezimendu finko batetik kanpo ehun eta jantzi gaiak txikizka saltzea.	23.056,17	Comercio al por menor fuera de un establecimiento comercial permanente de artículos textiles y de confección.
Merkatal establezimendu finko batetik kanpo oinetakoak, larruak eta larrugaiak txikizka saltzea.	20.663,71	Comercio al por menor fuera de un establecimiento comercial permanente de calzado, pieles y artículos de cuero.
Merkatal establezimendu finko batetik kanpo drogeria, kosmetika eta, oro har, kimikazko produktuak txikizka saltzea.	20.427,52	Comercio al por menor fuera de un establecimiento comercial permanente de artículos de droguería y cosméticos y de productos químicos en general.
Merkatal establezimendu finko batetik kanpo beste edozein motatako merkatalgaiak, beste inon sailkatu gabeak, txikizka saltzea.	22.202,81	Comercio al por menor fuera de un establecimiento comercial permanente de otras clases de mercancías n.c.o.p.
Bi sardeskako jatetxeak.	62.440,63	Restaurantes de dos tenedores.
Sardeska bakarreko jatetxeak.	45.190,41	Restaurantes de un tenedor.
Kafetegiak.	38.820,62	Cafeterías.
Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak	36.999,60	Cafés y bares de categoría especial.
Bestelako kafetegi eta tabernak.	22.484,73	Otros cafés y bares.
Izar bat edo biko hotel eta moteletan ostatu ematea.	66.113,16	Servicio de hospedaje en hoteles y moteles de una y dos estrellas.
Hostal eta pentsioetan ostatu ematea.	38.012,97	Servicio de hospedaje en hostales y pensiones.
Arroztegi eta apoloetxeetan ostatu ematea.	19.299,83	Servicio de hospedaje en fondas y casas de huéspedes, así como el de alojamientos turísticos agrícolas.
Etxeko elektragailuak konpontzea.	26.111,53	Reparación de artículos eléctricos para el hogar.
Bestelako kontsumo gaiak, beste inon sailkatu gabeak (oinetako konponketa eta artelanen, altzarien, zaharinen eta musika tresnen zaharberriketa izan ezik) konpontzea.	30.005,02	Reparación de otros bienes de consumo n.c.o.p. (excepto reparación de calzado, restauración de obras de arte, muebles, antigüedades e instrumentos musicales).
Bidaia-errepidezko garraioa.	42.576,96	Transporte de viajeros por carretera.

4. Indize zuzentzaileak. Hurrenkera eta bateraezintasuna.

Aurreko zenbakian aipatzen diren indize zuzentzaileak bertan ezarritako hurrenkera aplikatuko dira.

3.2 zenbakian aipatzen diren indizeak ezingo zaizkie aplikatu 3.1, a) eta 3.1, b) zenbakietan jasota dauden jarduerari.

3.2 zenbakian aipatzen diren indizeetako bat aplikagarri gertatzen denean, 3.4 zenbakian jarritakoa ezingo da erabili.

DEFINIZIO OROKORRAK

5. Langiletzat soldatapekoak nahiz soldatapekoak ez diren pertsonak hartuko dira, jardueraren titularrak barne.

6. Enpresaria ez da soldatapeko langilea, baldin eta bere jardueran benetan aritzen bada hura zuzendu, antolatu eta planifikatzeko lanak egiten eta, oro har, jardueraren titulartasunari dagozkion zereginak betetzen.

Harekin bizi diren ezkontidea edo izatezko bikote laguna, bikote hori beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada, eta adin txikiko seme-alabak ere ez dira soldatapeko langileak izango, baldin eta, jardueran benetan arituz, hurrengo zenbakiaren barruan sartzen ez badira.

Jarduera batean aritzen denak urtean gutxienez 1.800 ordu egiten dituenean soldatapekoa ez den langile bezala konputatuko da.

Urtean egindako ordu kopurua 1.800tik beherakoa denean, soldatapekoa ez den langilearen ordu kopurua

kalkulatzeko urtean benetan egindako ordu kopuruaren eta 1.800 orduen arteko proportzioa hartuko da.

Unitatetik beherako konputua egin ahal izateko, beharrezko izango da urtean 1.800 ordutik behera lan egin dela behar bezala frogatzen duten agiriak aurkeztea zergaren aitorpenarekin batera.

Aurreko parrafoan xedatutakoaren kaltetan gabe, enpresariaren kasuan unitatetik beherako konputua onartuko da baldin eta ekitaldian zehar hurrengo egoera hauetakoren bat gertatu bada:

- urte naturalean Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta edo baja hartu izana,
- beste jarduera bat burutzea bere kontura edo beste inorenera,
- lanerako ezintasuna eragin duten egoerak gertatzea, eta.
- jarduera etetea zergadunarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik.

Era berean, unitatetik beherako konputua onartuko da enpresarioaren jubilazioa frogatzen denean. Kasu horretan, jarduera zuzendu, antolatu eta planifikatzeko lanak kuantifikatzeko, eta oro har, jardueraren titulartasunari dagozkion zereginak aintzat hartzeko, enpresariaren konputua 0,25 pertsonakoa izango da urteko, non eta dedikazio handiago edo txikiagoa frogatzen ez den.

Ezkontidea edo izatezko bikote laguna, bikote hori beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada, edo adin txikiko seme-alabak soldatapeko langile ez direnean, 100eko 50ean konputatuko dira, baldin eta jardueraren titularra bere osoan konputatzen bada eta soldatapeko langilerik ez badago.

7. Soldatapeko langilea jardueran lan egiten duen beste edozein pertsona izango da.

Bereziki, soldatapeko langileak zergadunarekin bizi diren ezkontidea edo izatezko bikote laguna, bikote hori beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu bada, eta adin txikiko seme-alabak izango dira, baldin eta zergadunaren enpresan maiztasunez eta modu jarraituan lan egiten badute beharrezko lan kontratua tarteko eta Gizarte Segurantzaren erregimenari afiliatuta.

Jarduera batean aritzen denak dagokion hitzarmen kolektiboan langile bakoitzerako finkatutako urteko ordu kopurua egiten duenean, edo hitzarmen horren ezean, 1.800 ordu lan egiten baditu, soldatapeko langile bezala konputatuko da.

Urtean egindako ordu kopurua txikiagoa edo handiagoa denean, soldatapeko langilearen ordu kopurua kalkulatzeko benetan egindako ordu kopuruaren eta hitzarmen kolektiboan finkatutako orduen arteko proportzioa hartuko da, edo bestela, egindako ordu kopuruaren eta 1.800 orduen arteko proportzioa.

Hemeretzi urtetik beherako soldatapeko langilea edo ikasketa edo prestakuntza kontratuarekin lanean ari dena, eta minusbalia maila %33koa edo handiagoa duen langile ezindua %60an konputatuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan etekin garbia zehazterakoan.

«Soldatapeko langileak» moduluko unitateen zenbakia bi dezimalekin adieraziko da.

«Soldatapeko langileak» moduluko unitateen zenbakia behin kalkulatu ondoren, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan etekin garbia zehaztearen ondorio hutsetarako, era honetara jokatu da:

Likidatzen den urtean soldatapeko langile kopurua gehitu baldin bada aurreko urtearekin konparatuz gero, lehen lehenik urte horretako «soldatapeko langileak» moduluaren unitate kopuruaren eta aurreko urtean modulu horretan izandako unitate kopururaren arteko diferentzia kalkulatu da. Aurreko urtean ez bada zeinu, indize edo moduluen modalitatea erabili, urte horretako unitate kopuru bezala zera hartuko da, modalitate hori erabili izan balitz zenbaki honetako arauen arabera hartu beharko zena.

Ondorio horietarako, foru dekretu honetako III. eranskinaren 2. apartatuan xedatutakoa aplikatu beharra gertatzen denean langileak ez dira soldatapeko langileen koputuan sartuko.

Diferentzia positiboa bada, 0,60ko koefizientea aplikatuko zaio.

Diferentzia positiboa izan bada, eta, hortaz, 0,60ko koefizientea aplikatu bazaio, diferentzia hori ez da kontuan izango ondorengo gidoian xedatutakoaren ondorioetarako.

Ondoren zehazten den moduluko unitate kopuruen tarte bakoitzari hurrengo koefizienteak aplikatuko zaizkio:

<i>Tartea</i>	<i>Koefizientea / Coeficiente</i>	<i>Tramo</i>
1,00eraino	0,90	Hasta 1,00
1,01 eta 3,00 bitartean	0,85	Entre 1,01 y 3,00
3,01 eta 5,00 bitartean	0,80	Entre 3,01 y 5,00
5,01 eta 8,00 bitartean	0,75	Entre 5,01 y 8,00
8,00 baino gehiago	0,70	Más de 8,00

8. Lokalaren azaleratzat, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Tarifak aplikatzeko Instrukzioak, apirilaren 20ko 1/993 Foru Dekretu Arauemaileak onartuak, 14. 1.F Erregelaren a), b), c) eta h) letretan zehaztutakoa hartuko

da.

9. Lokal independentea publikoari arreta egiteko salmenta lekua duena izango da. Lokal ez independentea, beste lokal, galeria edo merkatu baten barruan kokatua egoteagatik, publikoari arreta egiteko salmenta-leku propiorik ez duena izango da.

Ondorio horietarako, lokal independenteak izango dira Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Tarifak aplikatzeko Instrukzioak, apirilaren 20ko 1/993 Foru Dekretu Arauemaileak onartuak, 14.1.F. erregelaren h) letran xedatutakoaren arabera tributatu behar dutenak.

10. Argindarraren kontsumoa enpresa hornitzaileak fakturatutakoa izango da. Fakturan argindar «aktiboa» eta «erreaktiboa» bereizten direnean, lehenengoa bakarrik konputatuko da.

11. Potentzia elektrikoa argindarra hornitzen duen enpresarekin kontratatutakoa izango da.

12. Lau pertsonak bete dezaketen mahaia hartuko da «mahai» unitatetzat. Edukiera gehiago edo gutxiagoko mahaiek dagokien proportzioan gehitu edo gutxituko dute zeinu edo modulu aplikagarriaren zenbatekoa.

13. Biztanleen kopurua udalerriko zuzenbidezko biztanleria izango da. Biztanleen udal erroldan inskribaturik dauden guztiek osatuko dute, udalerrian egon nahiz kanpoan egon. Egoiliar izaera inskripzioa egiterakoan eskuratzeko da.

14. Ibilgailu edo multzo baten zama-edukiera honela kalkulatu da: Batetik, Azterketa Teknikoko Txarteletan administrazioak bere kasuan jar ditzaken mugak kontuan izanik gehienez baimendutako pisua hartuko da, eta bestetik, ibilgailu eramaleen taren batuketa egingo (zamarik gabeko kamioaren pisua, atoiarena, erdiatoiarena eta trakzio-buruarena). Bi kopuruen arteko diferentziak emango ditu zama-edukiera, eta kilogramotan edo tonatan adieraziko da dagokionaren arabera, azken kasu horretan bi dezimalekin.

Erdiatoi dezberdinak erabiltzen dituzten trakzio-buruak direnean, beren tara zortzi tonatan ebaluatuko da gehienez.

15. «Plaza» esaten denean, establezimenduak ostatua emateko dituen unitate kopurua ulertu behar da.

16. «Eserleku» esaten denean, ibilgailuaren azterketa teknikoko txartelan azaltzen den unitate kopurua ulertu behar da, txoferrarena eta gidariarena kenduta.

17. «A» edo «B» motatako jolas makinak eta apustu-makinak Euskal Autonomia Erkidegokoan jokoa arautzen duen legerian hala definitutakoak izango dira.

Jardueraren titularraren jabetzakoak direnak, ordea, ez dira konputatuko.

18. «CVF» modulua Azterketa Teknikoko Txartelean azaltzen den ibilgailuaren potentzia fiskalak definituko du.

19. «Barraren luzera» moduluen ondorioetarako, «barra» delakoa berezok eskatzen dituzten edari eta jakiak zerbitzatu eta apoiatzeko erabiltzen den mostradorea izango da. Bere luzera, metroan eta bi dezimalekin adieraziko dena, bezeroak dauden aldetik neurtuko da zerbitzariatzat erreserbatutako zona sartu gabe. Orma, pilare eta abarri itsatsita apoiatzeko barra lagungarriak egonez gero, haien luzera modulua kalkulatzeko hartu beharko da kontuan, aulkiak eduki edo eduki gabe.

20. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan urteko etekin garbia zehaztearen ondorioetarako, zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin beharko da: Horiei ezarritako kopurua bider jardueran edo jardura sektorean erabili edo instalaturiko unitate kopurua, beraietako bakoitzari dagokiona.

Soldatapeko langileen eta soldatapekoak ez diren langileen kasuan, aipatu unitate kopurua orduen arabera zehaztuko da, eta, gainerako kasuetan, erabili diren edo instalatuta egon diren egunak kontuan izanik. Argindarraren kontsumoa edo ibilitako distantzia kalkulatzeko, berriz, kontsumitu diren orduko kilowatioak edo ibilitako kilometroak hartuko dira kontuan hurrenez hurren. Zenbaki oso bat ez bada, bi zenbaki dezimalekin adieraziko da.

Jardura edo jardura sektorean moduluen erabilera partziala ematen denean, konputatu beharreko balioa hainbanaketatik ateratzen dena izango da, benetako erabileraren arabera. Benetako erabilera zehazterik ez badago, zati berdinetan egotziko zaio moduluen erabilera bakoitzari.

MERKANTZIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO JARDUERARENTZAKO ARAU ESPEZIFIKOAK

21. Merkantzien errepide bidezko garraio jardueraren etekin garbia (Jardura Ekonomikoen gaineko Zergaren 722. epigrafea), ondoren zehazten den prozedurari jarraiki kalkulatu da:

1. 1. fasea. Aurretiko etekin garbia.

Jarduerarako ezarritako zeinu, indize edo moduluen zenbatekoak batuz lortuko da aurretiko etekin garbia. Era berean, zeinu, indize edo moduluen zenbatekoa kalkulatzeko, haietako unitate bakoitzari emandako kantitatea jardueran erabili edo instalatutako unitate kopuruarekin biderkatuko da. Kopuru hori zenbaki osoa ez denean, bi zenbaki hamartarrez adieraziko da.

Zeinu, indize edo moduluetak unitate kopurua zehazterakoan, «Definizio Orokorrak» atalaren arauak izango dira kontuan.

2. 2. fasea. Gutxitutako etekin garbia.

Inbertsiorako pizgarrien zenbatekoa etekin garbiari gutxituko zaio, ondoren jasotzen den moduan, eta gutxitutako etekin garbia lortuko da horrela.

Gutxipena inbertsiorako pizgarriengatik:

Kenkaritzat har daitezke ibilgetu material edo ukiezinaren amortizazio kontzeptuan, funtzionamendu, erabilpen, gozatze edo zaharkitzea dela-eta elementu desberdinek izaten duten benetako balio-galerari dagozkion zenbatekoak.

Balio-galera benetakoa dela ulertuko da ibilgetu ondare elementuaren erosketa prezioari edo produkzio kostuari ondoko koefizienteetako bat aplikatuz ateratzen den emaitza denean:

1. Amortizazio linealeko gehieneko koefizientea.
2. Gehieneko amortizazio alditik ateratzen den amortizazio linealeko gutxieneko koefizientea.
3. Aurreko bi horien artean dagoen amortizazio linealeko beste edozein koefiziente.

Hona hemen amortizazio taula:

Taldea Grupo	Azalpena Descripción	Gehieneko koef. Lineala Coeficiente Lineal Máximo	Gehieneko aldia Período Máximo
		(%)	Urteak /Años
1	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak / Edificios y otras construcciones	5	40
2	Lanabesak, erremintak, informazioa tratatzeko ekipak eta sistema eta programa informatikoak / Útiles, herramientas, equipos para el tratamiento de la información y sistemas y programas informáticos	40	5
3	Garraio elementuak eta gainerako ibilgetu materiala / Elementos de transporte y resto de inmovilizado material	25	8
4	Ibilgetu ukiezina / Inmovilizado intangible	15	10

Erosketa prezioa edo produkzio kostua amortizatu ahal izango da hondar-balioa kanpoan utzita, halakorik bada.

Eraikinen kasuan, lurzoruaren balioari dagokion erosketa prezioaren zatia ezin izango da amortizatu, eta lurzoruaren balioa ezezaguna denean, erosketa prezioa lurzoruak eta eraikinak erosketa-urtean dituzten balio katastralen artean hainbanatuz kalkulatu da.

Elementuz elementu, hau da, banaka egingo da amortizazioa. Halere, amortizazio taulako talde berean sarturik dauden ondare elementuak direnean, guztiak batera hartuta egin ahal izango da amortizazioa, betiere ondare elementu bakoitzari dagokion amortizazioaren zatia edozein momentutan jakin badaiteke.

Ibilgetu materialaren ondare elementuak funtzionatzeko moduan jartzen direnetik aurrera hasiko dira amortizatzen eta, ibilgetu ukiezinarenak, ordea, sarrerak sortzeko moduan daudenetik aurrera.

Erabilgarritasun aldiak ezingo du amortizazio taulan jasotako gehieneko amortizazio aldia gainditu.

Erabilita erosten diren ibilgetu materialaren ondare elementuak direnean, amortizazioa erosketa prezioaren gainean kalkulatu da, eta amortizazio linealaren gehieneko koefizientea aplikatuz lortutako kopurua birekin biderkatuta ateratzen dena izango da muga.

Ondasunen erabilpena lagatzen bada erosi edo berritzeko aukera emanda, eta eragiketaren baldintza ekonomikoengatik arrazoizko zalantzarik ez dagoenean bata ala bestea aukeratu denik, lagapen hartzaileak amortizazio kontzeptuagatik egin dezakeen kenkariaren zenbatekoa ondasun horiei dagozkien amortizazio kuoten parekoa izango da, eta bere kalkulua amortizazio taulan jasotako koefizienteak ondasunaren erosketa prezioari edo produkzio kostuari aplikatuz egingo da.

Ibilgetu materialaren elementu berriak zergadunaren esku jarri badira ekitaldiaren barruan eta horien balio unitarioa 601,01 eurotik gorakoa baino handiagoa ez bada, askatasunez amortizatu ahal izango dira, baina guztiengatik ezingo da 3.005,06 euroko muga gainditu urtean.

3. 3. fasea. Moduluen etekin garbia.

Hala behar denean, gutxitutako etekin garbiari ondoren zehazten diren indize zuzentzaileak aplikatuko zaizkio, moduluen etekin garbia lortzeko.

Indize zuzentzaileak ondoren adierazten den ordenaren arabera aplikatuko dira gutxitutako etekin garbiaren gainean edo, bestela, haiek aplikatuta zuzendu den etekin garbiaren gainean:

a) Indize zuzentzaile berezia.

Izaera orokorrean 0,80 indizea aplikatuko da titularra ibilgailu bakarra duenean.

0,90 indizea aplikatuko da jarduera traktokamioen bidez egiten denean eta titularrak erdiatorik ez duenean. Jarduera traktokamioi bakarrez eta erdiatorik gabe egiten denean, aldiz, 0,75 indizea aplikatuko bakarrik.

b) Denboraldiko indize zuzentzailea.

Jarduera denboraldiko jardueratzat hartzen denean, ondoko taulako indizea aplikatuko da denboraldiak irauten duenaren arabera.

Urteko egun jakin batzuetan, jarraitu nahiz txandakatueta, egiten diren jarduerak hartuko dira denboraldiko jardueratzat, beti ere urteko egun kopuru osoa 180tik gorakoa ez bada.

<i>Denboraldiaren iraupena</i>	<i>Indizea / Índice</i>	<i>Duración de la temporada</i>
60 egun gehienez	1,50	Hasta 60 días
61 eta 120 egun bitartean	1,35	De 61 a 120 días
121 eta 180 egun bitartean	1,25	De 121 a 180 días

c) Soberakinaren indize zuzentzailea.

Gutxitutako etekin garbia edo, bestela, aurreko indizeak aplikatuta zuzendutakoa 33.640,86 euro baino handiagoa denean, zenbateko horren gaineko soberakinari 1,30 indizea aplikatuko zaio.

d) Indize zuzentzailea jarduera hasteagatik:

Jarduera hastean zergadunak baldintza hauek betetzen baditu:

— Jarduera hori 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hastea.

— Denboraldiko jarduera ez izatea.

— Jarduera hori lehenago beste titularitate edo kalifikazio batekin egin ez izatea.

— Soilik jarduera horretarako erabiliko den lokal edo establezimenduan egitea, eta zergadunak burutu litzakeen beste jarduera ekonomikoetatik guztiz bereizita egotea.

Zergadunak ondoko indize zuzentzaileak aplikatu ahal izango ditu:

Lehen ekitaldian: 0,80 indizea.

Bigarren ekitaldian: 0,90 indizea.

III. ERANSKINA

JARDUERA GUZTIETARAKO OROKORRAK DIREN ALDERDIAK

1. Urtea amaitzean edo jarduera eten nahiz denboraldia bukatzean, zergadunak zeinu, indize edo moduluen zenbatekoaren batez bestekoa kalkulatu beharko du urte natural horretan jardueran aritu den denbora osoa kontuan hartuz. Halaber, bidezko etekin garbia ere kalkulatu du.

2. «Merkantzien errepide bidezko garraioa» jardueran izan ezik (JEZaren 722. taldea), langile langabetuak ez dira soldatapeko pertsonatzat hartuko kontratatuak izan diren ekitaldian, haien kontratua mugagabea denean eta honako talde hauetakoren batean sartuta daudenean:

a) Hogeita hamar urtetik beherako gazte langabetuak.

b) Enplegu Bulegoan gutxienez hamabi hilabetez izena emanda dauden langabetuak.

c) Berrogeita bost urtetik gorako langabetuak.

Aurreko parrafoan xedatutakoa aplikatzeko, ezinbestekoa izango da zergaldi bakoitzaren amaieran edo, lehenago bada, jarduera uzten den egunean, soldatapeko langile kopuruak ekitaldi hasieran zegoen kopurua gainditzea. Ondorio horietarako, bere jarduera guztietan enpresariari zerbitzuak eskaintzen dizkietenak izango dira soldatapeko langileak, jarduera horien etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen den metodo edo modalitatea edozein dela ere.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren zeinu, indize eta moduluen modalitatea aplikagarri duten eta hari uko egin ez dioten jardueren etekin garbia kalkulatzekoan, ondoko langile hauek ez dira ekitaldian zehar soldatapeko langiletzat hartuko: Ekitaldiaren hasieran iraupen jakineko edo aldi baterako kontratuak indarrean dituztenak, baldin eta beren kontratuak, edozein modalitatetakoak izanik ere, mugagabe bihurtzen badira. Gauza bera gertatuko da ikastun-kontratuak, praktikaldikoak, prestakuntzakoak, errelebuak eta jubilazio adina aurreratzeagatik ordezkapen kontratuak dituzten langileekin, edozein egunetan egiten direla ere, ekitaldian zehar mugagabe bihurtzen direnean.

4. Aurreko 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoa ez da aplikatuko hurrengo kasuetan:

a) Martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak, Langileen Estatutuari buruzko Legea onartzeakoak, 2.1 artikuluan jaso edo beste legezko xedapenetan zehazten diren lan harreman bereziak daudenean.

b) Enpresariaren, juridikoki sozietate itxura duten enpresetako zuzendaritza karguen nahiz bertako administrazio organoetako kideen ezkontideak, edo izatezko bikote lagunak, bikote horiek beti ere maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratu badira, aurreko ahaideak, ondorengoak eta bestelako senitartekoak, odolkidetasun edo ezkontza bidezkoak, bigarren mailaraino, hau barne, kontratatzen direnean, eta kontratazioak administrazio organoetako kideei dagozkienean.

c) Kontratazioa egin aurreko lehen hogeita lau hilabeteetan, enpresa berean edo enpresa talde berean kontratu mugagabe batekin aritu diren langileak kontratatzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikagarria izango da, oro bat, langileak lan harreman bat izan badu aurretik beste enpresa batzuekin, eta onurak eskatzen dituen enpresak beste horiek ordeztu baditu martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Langileek kontratua egin aurreko hiru hilabeteko epean amaitzen dutenean beren mugarik gabeko lan harremana.

5. Aurreko 3. zenbakian aipatzen diren pizgarrien onuradunek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Beren zerga obligazio guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea.

b) Enplegu programak aplikatzeak dakartzan onurak jasotzeko aukeratik baztertuta gelditu ez izana aurreikusi gabeko urraketa larriak edo oso larriak egiteagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legegileak, Gizarte alorreko urraketa eta zigorrei buruzko Legearen testu bateratuari buruzkoak, 46. artikuluan esandakoari jarraituz.